

## ALDIZKARIAN LANAK ARGITARATZEKO BIDEA

BAT aldizkarian artikulua argitaratzeko eskaerarekin batera, mesedez, ziurtatu honako irizpideak betetzen dituela:

**DATU PERTSONALAK ETA ANONIMOTASUNA:** “Egileen datuak” izeneko fitxategia bete beharko dute egileek. Bertan Egilearen/egileen kidetza (unibertsitatea, iker-gunea, erakundea, etab.) eta helbide elektronikoa ezarriko dira, anonimotasuna gordetze aldera.

**ARTIKULU-BURUAN:** artikulua izenburua, besterik ez.

**LABURPENA ETA HITZ GAKOAK:** Artikuluaren hasieran, bere edukiaren laburpen bat erantsiko da (gehenez 1000 karaktere) eta baita ere lauzpabost hitz gako.

**ARTIKULUAREN EUSKARRIAK.** Lana euskarri elektronikoan (DOC(X), ODT edo RTF formatuetan) eta PDF bertsioan.

**ESTILOA:** Testua 1,5 lerroartekin; testu-gorputza 12 puntukoa eta letra-tipoa, Arial, Times New Roman, Calibri...

**LUZERA:** 20.000-30.000 karaktere bitartekoa, zuriuneak barne.

**ZUZENKETA:** Euskara batuaren arauen arabeko zuzenketa ortografikoa errespetatuz (Xuxen zuzentzaile ortografikoa erabiltzea gomendatzen da).

### ILUSTRAZIOAK

- Lerro eta zutabeetan ematen den informazioa TAULA bezala emanda.
- TAULAK, IRUDIAK eta GRAFIKOAK zuri-beltzekoak.
- TAULAK, IRUDIAK eta GRAFIKOAK izendatuta eta kronologikoki zerrendatuta.
- Kasu guztietan iturria adierazita.
- Irudien kasuan jpg edo tankerako formatuan.
- Grafikoen kasuan jatorrizko formatua ere bidali (Excel...)

**OIN-OHARRAK:** ohar bakoitza oin-ohar gisa gehitu, 10 puntuko testua osatuz.

### AIPUAK:

- Aipu laburrak. “komatxo” artean testuan bertan jasota: [...] (Altuna 2017).
- Aipu luzeak. Aparteko pasartean idatziko dira. Amaierako puntua erreferentziaren aurretik jarrita: [...] (Altuna 2017)

## ERREFERENTZIA ETA OHARRAK:

- Egile bakarra denean deitura eta urtearen artean ez da komarrik jarriko: (Zubiaga 2012).
- Bi egile direnean bi deiturak puntu eta koma bidez bereiziko dira: (Suay; Sanginés 2010).
- Hiru egiletik gora direnean (et al.) idatziko da letra arruntez: (Martí et al. 2005).

## BIBLIOGRAFIA

- Liburuen kasuan: Egilearen abizenak maiuskulaz eta izen osoa. Argitaratze-urtea parentesi artean; izenburua letra etzanez idatzia, argitalpen hiria eta argitaletxea.
  - ESTEBAN, Mari-Luz (2017). *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Zarautz: Susa-Lisipe.
- Artikuluen kasuan: Egilearen abizenak maiuskulaz eta izen osoa jarriko da. Ondoren argitaratze-urtea parentesi artean. Izenburua komatxoaren artean, aldizkariaren izena letra etzanez, zenbakia eta orrialde zenbakiak, argitalpen hiria eta argitaletxea.
  - ZALBIDE, Mikel (2015). "XX. mendeko hizkuntza-plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan", in *Hermes* 50, 10-29.
- Interneteko dokumentuen kasuan: Egilearen abizenak maiuskulaz, izena (argitalpen-urtea), dokumentuaren izena, url-a eta kontsulta-data (urtea-hilabetea-eguna).
  - AGIRRE, Lorea (2015). "*Euskara partekatzen duguna*" 19. Korrikako mezua. <http://topagunea.eus/euskara-partekatzen-duguna/> [Azken kontsulta: 2019-10-05]

**EPEAK:** Aldizkariaren koordinatzailearen eta egilearen artean lana eskuratu eta argitaratzeko epe bat adostuko da. Oso garrantzitsua da epe horiek errespetatzea, artikuluen zuzenketa eta edizio lana atzeratuz gero argitalpena atzeratzen delako.

**ARTIKULUAREN IZENBURUA:**

EZ bete.

*Artikulua bidali den DATA:*

EZ bete.

*Artikulua onartu den DATA:*

**EGILEEN DATUAK. (ALDIZKARIAN AZALDUKO DIREN BEZALA IPINI)**

#	IZENA	ABIZENA(K)	KIDETZA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	HELBIDE POSTALA	ORCID KODEA <sup>1</sup>	Tel. zenbakia	NAN zenbakia
1								
2								
3								
4								
5								

<sup>1</sup> ORCID ikerlarien lana identifikatu eta biltzeko sarea da. Ikerlarien identifikazio zenbakia lortzeko ikus <https://orcid.org/> helbidea

## ARTIKULUARI BURUZKO XEHETASUNAK

Adierazi artikulu honek finantzaketarik duen

**Adib.** NAEN Euroeskualdeko 'Mugaz gaindi' diru-laguntzari eskerrak burutu da egitasmo hau.

Adierazi artikulu honek gatazka etiko edo bateraezintasunik izatekotan, adierazi eta azaldu konponbidea

**Adib.** Laginaren informazio konfidentzial sentikorra Datuen Babeserako Legearen arabera gorde eta babestu da.

Bestelakoak (adierazi):

Bai, baimena ematen dut nire datuak biltzen eta gordetzen direla (Ley Orgánica de Protección de Datos 3/2018)